

DEKALOGOIA

– NOLA TXERTATU IRAUNKORTASUNAREN ZEHARKAKO BEGIRADA KULTURA- PROIEKTUETAN –


Jasangarritasunaren ideia triangelu baten 3 erpinetan oinarritzen da. Triangelu hori alderdi ekonomikoek, ekosistema sozial eta naturalek eta bizitzek osatzen dute. Horregatik, proiektu kultural bat jasangarria izango da, hiru eremu horiei dagokienez adosten ditugun balioekin bat datorren heinean.

BEHARRAK

1. Erabaki garrantzitsua da gure **forma juridikoa** zein izango den erabakitzea. Hautaketa horrek, batetik, maila politikoan kolektibo gisa non kokatu nahi dugun adierazten du, eta, bestetik, lan-eremuetan mugitzen lagunduko edo zailduko digu. Honen arabera lehiaketetara aurkeztu edo ez aldatuko da eta laguntza batzuk edo beste batzuk jasotzeko aukera izango dugu. Beraz, beharrezkoa da ikerketa-lan bat egitea existitzen diren forma juridikoak ondo aztertzeko eta bakoitzak dituen aukerak ezagutzeko.
2. Baliteke gure proiektuaren iraunkortasun ekonomikoa dirulaguntza publikoen arabera izatea. Ugariak eta desberdinak dira **dirulaguntzak**. Beharrezkoa da ikertzea zeintzuk diren, zeintzuk hauta ditzakegun, moten arabera antola ditzakegun, egutegiak... informazio hori guztia bildu eta gure agendan sartu, maila pertsonalean jasangarria ez den zerbait bihur ez dadin.
3. Proiektu bakoitzak **governantza-eredu** kontziente, espezifiko eta berrikusgarri bat asmatu eta martxan jartzea eskatzen du. Arduren banaketa, zereginak, egutegiak antolatzea, erabakiak hartzeko modua... adostea eta egunerokoa tresna erabilgarria izango den dokumentu batean jasotzea.
4. *Hemendik 5 urtetara zer?* beharrezkoa da **epe luzearako plangintza** ere egitea. Etorkizunean eragina izango duten egungo erabakiak hartzeko balizko eszenarioak eta estrategiak irudikatzea. Urtean une bat baino gehiago dituen plangintza, jarraipena egin ahal izateko.
5. Kolektibo askok hasierako **prestakuntza** eskatzen dute beren jardueraren profesionalizazioan. Prestakuntza horrek alderdi horiek guztiak proposatuko ditu, hala nola kudeaketa, diruzaintza, gobernantza, zainketak... eta proiektu bakoitzari dimentsio erreala emango dio.

ARRISKUAK

6. Diru-iturri bakar baten mende egoteak suposatuz dezake, iturri hori desagertuz gero, proiektua ekonomikoki ez eustea. Horregatik, beharrezkoa da **diru-sarrerak dibertsifikatzea** eta beti **finantzaketa-iturri berriak** bilatzea.
7. Dirulaguntza publikoen mende egoteak arriskuan jar dezake, alde batetik, **proiektuaren nortasuna** (proposamena egokitu eta beste zerbait bihurtu), eta, bestetik, **proiektuaren autonomia** (kanpoko eragilearen denboren eta egutegietan txertatzeagatik). Honetaz gain, laguntza hori ematen ez bada, proiekturik kolokan jartzeko arriskua ere badago.



Irudia. Silvia López de Lacalle Gurruchaga

Nola txertatu iraunkortasunaren zeharkako begirada kultura proiektuetan

K bulegoa-k prestakuntza-saio bat antolatu zuen 2024ko ekainaren 13an Gipuzkoako kultura-eragileentzat, berrikuntza- eta sormen-proiektuak garatzeko beharrezkoak diren tresnak eta ezagutzak txertatzeko, bai eta baliabideen hausnarketaren zentzuan iraunkorrak direnak ere, epe luzera birformulatzeko, eskalatzeko eta bideragarriak izateko aukerekin.



K bulegoa Ibilbideak

Kultura-proiektuak prestatzeko eta indartzeko mugarri monografikoak

8. Proiektu komun baten parte garenon bizi-zirkustantziak aldatuz doaz, eta, horrekin batera, interesak, prestutasunak, gaitasunak eta abar aldatzen dira. Baliteke horrek **zaintzei lotutako krisia** eragitea. Krisi hori detektatu, artatu eta gizarteratzea bide interesgarria da proiektua arriskuan ez jartzeko.

9. Beharrezkoa da aldian behin gure proiektuaren eta **jardueraren bolumena berrikustea**. Iraunkortasunari buruzko paradigma gure proiektuak dituen balioen arabera finkatu ditugunez, baliteke une jakin batzuetan proiektuaren hazkundeari edo deshazkundeari buruzko erabakiak hartu behar izatea.

10. Kultura-erakunde baten esparruan lan egiteak beste ideia, helburu eta politika batzuk dituen proiektu handiago batek xurgatzeko arriskua dakar. Hori dela eta, proiektuaren iraunkortasuna bultzatzeko, batzuetan **kontraesanak** onartu beharko dira, eta beste batzuetan nolabaiteko pedagogia ariketa bat egiteko aukera suertatuko da, eraldaketak bultzatu eta lan-eszenario atsegina lortzeko bidean.

KOMENI DA

11. Komenigarria da ulertzea proiektu bakoitza malgua dela, moldagarria dela eta lurraldez alda daitekeela ere. Hau horrela izanik, haren **balioak birpentsatu, gobernantza-ereduak berrikusi eta testuinguru berrietara egokitzeko** eta aukera berriak ahalbidetzeko ariketa egitea aukera interesgarria da.

12. Epe luzerako proiektu bat **finantziazio egonkorrekin** garatu ahal izateak, iraunkortasuna emateaz gain, denbora eta aukera ematen du jarduera zein norabideetara zuzendu nahi den erabakitzeke.

13. **Sarean lan egitea** interesgarria da beti. Lurraldeko beste eragile batzuk ezagutzea eta **maila politikoan parte hartu eta inplikatzeko** zure proiektuak duen jarduera zeharkatzen eta inguratzen duen eremuetan. Espazio horietan egoteak ikasteko aukera ematen du, ikusgarritasuna eta aintzatespena ematen du, eta etorkizuneko lan-aukerak irekitzen ditu baita ere.

14. Funtsezkoa da momentuak, zalantzak eta erabakiak beste eragile batzuekin partekatu ahal izatea, zure **proiektuari kanpoko begirada** bat emateko. Horretarako, komeni da jardueraren kontraste eta prestakuntza puntualetarako espazioak aurreikustea eta txertatzea.

15. Laguntza publikoek diruz lagundutako proposamenak, zure kolektiboak komunitateari eskaini diezazkiokeen zerbitzu bihurtzea urrats estrategikoa da aurreko arriskuak saihesteko (diru laguntzen mende egotea edo diru-sarreraren iturri bakarra izatea besteak beste).